

2014ko AZAROAREN 3ko KANBOKO HERRIKO KONTSEILUAREN BILKURA

Herriko Kontseilua Herriko Etxean bildu da, Vincent BRU jauna mahaiburu zelarik, 2014ko azaroaren 3an, astelehenarekin, 20:00etan.

Hor zirenak: Vincent Bru jaun auzapeza, Bernadette Jougleux anderea, Christian Devèze jauna, Eliane Noblia anderea, Pascale Lespade anderea, Didier Irastorza jauna, Eliane Aizpuru anderea, Henri Saint Jean auzapezorde jauna, Anne-Marie Pontacq anderea, Christiane Hargain-Despéries anderea, Patrice Dor jauna, Yolande Huguenard anderea, Jean-Jacques Lassus jauna, Jean-Noël Magis jauna, Corinne Othatceguy anderea, Peio Etchelecu jauna, Roger Barbier jauna, Carmen Gonzalez anderea, Pascal Bourguet jauna, Véronique Larronde anderea, Camille Jenvrin anderea, Argitxu Hiriart-Urruty anderea, Philippe Bacardatz jauna, Nathalie Aïçaguerre anderea, Pantxo Michelena jauna, herriko kontseilariak.

Ezin etorria jakinarazi dutenak: Frédéric Bardina auzapezorde jauna, Vincent Goytino jauna, Argitxu Hirigoyen anderea, Maryannick Hirigoyen anderea, herriko kontseilariak.

Prokurazioa: Bardin jaunak Lespade andereari, A. Hirigoyen andereak Huguenard andereari, Hirigoyen jaunak Noblia andereari.

1 - Bilkurako idazkariaren izendatzea.

Yolande Huguenard **aho batez** bilkurako idazkari izendatua izan da.

2 – Azken bilkurako agiriaren onartzea.

Jaun auzapezak Kontseiluko kideei galdetu die oharrik ba ote zuten egiteko 2014ko irailaren 29ko bilkurako agiriari buruz. Oharrik ez denez egin, azken bilkurako agiria aho batez onartu da.

2bis – Aipagaietan gai baten gehitzea.

Jaun auzapezak proposatu du aipagaiei gai bat gehitzea:

- Langileak: LLK moduko postu sorkuntza.

Aho batez onartua.

Vincent Goytinoren sarrera.

Jaun auzapezak Herriko Kontseiluari galdegin du LLK (Lanean Laguntzeko Kontratua) moduko postu bat sortzea urte batentzat, 2014ko azaroaren 11tik goiti, 20 orenez asteen. Horren bidez Fabrice Hernandezen partaidetza ukan liteke: honek lan ona egin zuen Assantza kulturgunean eta Arnagan, gidari gisa. Langile hori Assantza kulturgunean ariko litzateke Lehen Mundu Gerlari buruzko erakusketaren zaintzeko 2014ko abendu bukaera arte, artxiboetan hasi lana segitzeko (Poupel, Bota, Durrieux, pilotari buruz...), eta sailkatze bat eta aitzin-inbentario bat egiteko. Bestalde, Fabrice Hernandez Arnagan ere ariko da gidari lanetan.

Lansaria kalkulatu da 330 indize gordinaren arabera, 316z emendatua, erran nahi baita 836,09 €-ko lansaria hilabetean, hau da 683,95 €-kdansari garbia 20 oren lanentzat astean.

Frantses estatuak eman diru-laguntza 702,06 €-koa da hilabetero, beraz Herriko Etxeak 92,30 €-ko gastua ukanen du hilabetero (1.107,60 €urteko).

P. Michelenak iradoki du, frantses estatuak eman diru-laguntza eta F. Hernandezi esleitu funtzioak kontuan hartuz, 20 oren/astean baino gehiagoko kontratua egitea, bereziki Assantza kulturunean metatu funtsak balioan ezartzeko.

Jaun auzapezak erantzun dio ez dela lanik izanen denbora guzian. Mementoan Assantza kulturunean erakusketa bat bada, abenduan bukatuko dena, eta ondokoak, edo Pazkoz edo berantago izanen dira.

P. Michelenak jakinarazi du bildumetan ikusi duenaren arabera, zati bat Kanboko ondarearen parte dela, eta interesgarri litzatekeela lan bat egitea kanboarrek iraganeko dokumentuak, artxiboak, argazkiak ezagutzeko, adibidez ondarearen egunean. Ohartarazi du dokumentuak batak besteen gibelean metatuak direla.

Jaun auzapezak zehaztu du astean 20 orenetako lanpostua justifikatzen dela, langileak bere lana aitzinatu ahal izanen duelako, Assantza kulturunean eta Arnaga hiru hilabetez hetsiak izanen baitira. Esperientzia urte batentzat abiatzen da, eta behar izanez gero, luzatuko da.

Jaun auzapezak Herriko Kontseiluari galdegin dio bere iritzia eman dezan LLK moduko lanpostu horri buruz.

Aho batez onartua.

3 – HTParen aldaketa berrikusketa eta AOBG baten plantan ezartzea: ikerketa bulegoaren izendatzea.

Jaun auzapezak oroitarazi du Herriko Kontseiluak, joan den uztailaren 21eko bilkuran, baldintza agiria balioetsi duela eta jaun auzapezari baimena eman diola HTParen berrikusketa orokorarentzat prozedura abiatzeko eta plantan ezartzeko arkitektura eta ondarea balorean ezartzeko gunea (AOBG).

Kontsultatze bat abiatu elkargoa bi prozedura horietan lagunduko duen ikerketa bulegoaren izendatzeko. Konkurrentzia deialdi publikorako oharra abiatu zen joan den irailaren 5ean. Eskaintzen epemuga irailaren 29an finkatu zen, 12:00etan. Hiru gutun errezibitu ditugu.

Lehen bilkura irailaren 29an iragan da, 14:30ean, gutunak idekitzeko. Ikerketa bulegoa hautatzeko konplexutasunaren aitzinean, batzordeak erabaki du hautagaien entzutea. Entzunaldia urriaren 21ean iragan zen batzordeko kide guzien aitzinean.

Hona hemen hautagaien eskaintzak:

Hautagaia	HTP (BEZa gabe)	AOBG (BEZa gabe)	OROTARA BEZa gabe
Lavigne bulegoa Pauen eta AMIVED Tarben	38.575 €	77.112,50 €	115.687,50 €
AXE ET SITE Baionan eta ETEN ENVIRONNEMENT Saint-Paul-lès-Daxen	41.475 €	73.840 €	115.315 €
GHECO Arroxelan eta GEOCIAM Bidarten	40.225 €	54.070 €	94.295 €

Hauek ziren hautatzeko irizpideak:

- Gaitasunak: %40
- Metodologia: %20
- Prezioa: %30
- Epeak: %10.

Honako balioztapena atera da:

- 68 Lavigne bulegoarentzat
- 75 Axe et Site bulegoarentzat
- 71 GHECO bulegoarentzat

Hautagaiak entzun ondoan, batzordeak AXE et SITE bulegoa hautatu du.

Ph. Bacardatzek seinalatu du gutunak ideki direnean, Axe et Site bulegoaren eskaintza handiagoa zela.

Zerbitzuen zuzendari nagusiak erantzun dio bilkura kopurua eta egiteko dossier kopurua bezalako elementuak kontuan hartu behar izan direla. Hauek ez zirenez argiki erakutsiak jatorrizko dokumentuetan, hautagai zenbaiti zehaztasunak ematea galdegina izan zaie. Ondorioz, bakoitzaren zerbitzuen kalkulu berria egin ahal izan da.

Jaun auzapezak xehetasunak eman ditu bulego desberdinek Kanboko Herriko Etxearentzat egin obrei buruz, eta jakinarazi du GHECO bulegoak jadanik lan egin duela Herriko Etxearentzat HTParen gauzatzean, eta arazo teknikoak agertu direla. F. Bardinek jakinarazi zuen GHECO bulegoak Kanbo sobera ongi ezagutzen zuela eta neutroa behar zuela izan.

Axe et Site bulegoa aitzinean zenez, jaun auzapezak proposatu du Herriko Kontseiluari bulego hori hautatzea Herriko Etxea laguntzeko HTParen berrikuste eta AOBG baten plantan ezartzeko prozeduran.

Aho batez onartua.

4 – Herri barnea.

Jaun auzapezak Herriko Kontseiluari galdegin dio baieztatzea “Herri barnea” operazioko 3. partearen –elizako plazaren antolaketa– 2016ra gibelatua dela, uztailearen 4ko uholdeen ondorioak konduan hartzeko gisan saltzaileentzat.

Obren zenbatekoa (BEZa gabe), obralaritza barne, 677.639,48 €-koa da.

Jaun auzapezak galdegin du Herriko Kontseiluari 2016ko 3. partearen obratzea baieztatzea eta Kontseilu Nagusiari laguntza galdegitea Lurrealde Kontratuaren kariatara.

Onartua. Bozkatu gabe gelditu dira: A. Hiriart-Urruty anderea, Ph. Bacardatz jauna, N. Aïçaguerre anderea, P. Michelena jauna, aitzineko bilkura batean ere gai berarentzat ez baitzuten bozkatu.

5 – Lurrealde kontratua.

Jaun auzapezak oroitarazi du operazio zenbait aurreikusiak direla lau urterendako izenpetua izan den Lurrealde Kontratuarentzat (2013-2014-2015-2016). Operazio zenbait ez dira gauzatzen ahalko, eta esleitu diru-laguntzak ez galtzeko gisan, jaun auzapezak proposatu du hauek, operazio berri batzuek ordeztea.

Kontseilu Nagusiak jakinarazi du gehigarri prozedurak posible zirela Herriko Etxeko taldea aldatzen balitz edo Herriko Kontseiluak egin nahi lituzkeen aldaketentzat. Operazioaren helburua Errobiko lurrealdearentzat aurreikusi kredituak 2016ko abenduaren 1a aitzin baliatzea da.

Jaun auzapezak jakinarazi du prestaketa bilkura bat eginarazi duela B. Auroy eta Errobiko lurrealdeko auzapezekin, dispositibo berri horren berri emateko. Izan ere, proiektu fitxa berriak 2014ko abenduaren 1a aitzin itzuli beharko dira.

Kanboko Herriko Etxearentzat, operazio batzuk inskribatu ziren: “Herri barnearen” antolaketa, eraikin publiko zenbaiten arraberritzea ekonomia energetikoen egiteko, elizaren arraberritzea eta arauen arabera ezartzea, eta merkatu estali baten eraikitzea.

Elizako obrei dagokionez, jaun auzapezak jakinarazi du galdegina izan dela herriko eraikin hori monumentu historikoetan sailkatua izatea. Kasu horretan, operazio hori Lurrealde Kontratutik kendua liteke, eta obren %80a DRACak, Eskualdeko Kontseiluak eta Kontseilu Nagusiak ordainduko lukete.

Merkatu estaliaren obrak ere kenduak litezke. Izan ere, proiektu hori ez da 2016ko abenduko bukatzen ahalko, posibilitate eta borondate eskasagatik. San Josep parkera lekuz aldatu zen merkatua berriz ere Xikito karrikara etorri da, hau berritua izan baita, karrikako saltzaileek galdegin ondoan.

Elizaren arraberritzeko eta arauen arabera ezartzeko esleitu diru-laguntza 118.475 €-koa zen eta merkatu estaliarentzat 85.500 €-koa. 16.200 €-ko gainerakoa ere eskuragarri da “Herri barnea” operazioentzat epe kontuengatik, parte bat ez delako oraino egin: Xikito karrikatik Xerrikarrikara doan karrikartea, eta Xikito karrika berriz ez tratatzeko.

Jaun auzapezak proposatu du gehigarri gisa ezarriko diren ondoko operazioak gehitzea:

- Herri barnea – 5. Parte (lau karrikarte), 236.000 €-rentzat (BEZa gabe), %30eko diru-laguntza galdegin da, hau da, 70.775 €;
- Zoladura gogorreko tenis jokaleku baten estaltzea, 253.000 €-rentzat (BEZa gabe), %30eko diru-laguntza galdegin da, hau da, 75.900 €.

- Gazteentzat kirol muntadurak eraikitzea (*skate-park* eta *agorespace*), 245.000 €-rentat (BEZa gabe), %30eko diru-laguntza galdegin da, hau da, 73.500 €.

Jaun auzapezak Herriko Kontseiluari galdegin dio programa berri hau onartzea eta bi operazio kentzea: merkatu estalia, 2016ko abenduaren 1eko ez dena egina izanen, eta eliza, monumentu historiko sailkatua izanen dena.

A. Hiriart-Urrutyk xehetasunak galdegin ditu tenis jokalekuko estaltzeari buruz, hau osoki ala partez estaliko den.

Jaun auzapezak erantzun dio osoki estalia izanen dela, bestela haizea, euria eta hostoak sartuko direlako.

N. Aïçaguerrek galdegin du tenis jokalekua osoki hetsia izanen denez, nor arduratuko ote den.

Jaun auzapezak jakinarazi du, beste gelentzat bezala, okupatze ordutegia eginen dela Herriko Etxean.

D. Irastorzak zehaztu du Errobi kolegioko irakasleek jadanik tenis jokalekuak erabiltzen dituztela aro ederra delarik.

N. Aïçaguerrek galdegin du *agorespace*-a kirol zelai egonkortuan eraikiko denez.

Jaun auzapezak ezetz erantzun dio, eta mapa batean erakutsi du non kokatuko den.

D. Irastorzak zehaztu du *agorespace*-a kirol zelai egonkortu bazterrean kokatuko dela, Zabalki gelaren aldean.

A. Hiriart-Urrutyk galdegin du *skate-park*-a non ezarriko den.

D. Irastorzak jakinarazi du 2. mailako 2. kirol zelaia baino gorago kokatua izanen dela, igerilekuaren hesitik hurbil.

A. Hiriart-Urrutyk galdegin du zergatik proiektu horiek ez diren batzordean aurkeztuak izan.

Jaun auzapezak erantzun dio epeengatik izan dela, proiektu fitxak 2014ko abenduaren 1a aitzin itzuli behar direlako. Baina proiektu horiek kirol batzordean aurkeztuko dira eta “animazio, gazteria eta besta” batzordean, muntadura horiek gazteendako direlako. Zehaztu du muntadura horiek agintaldi denboran egitea hitzematzen duela, bata 2015ean, bestea, 2016an.

D. Irastorzak zehaztu du muntadura horiek eskoletatik hurbil izanen direla, eta hauek erabiltzen ahalko dituztela, baita eskolaldi inguruko denborako aktibitateentzat ere.

A. Hiriart-Urrutyk ohartarazi du gazteentzako muntadurak zinez falta zirela, baina gaitzetsi du proiektu horiek Herriko Kontseilu denboran jakitea. Zehaztu du bere taldeak ez duela kontra bozkatuko.

P. Michelenak gehitu du obra horiek haien programan ere aurreikusitak zirela.

Ph. Bacardatzek galdegin du Lurralde Kontratuaren xehetasunak ukanen ote zituzten.

Jaun auzapezak oroitarazi du oposizioari proposatu zuela haien errezibitzea Herriko Kontseiluaren bilkurak iragan aitzin, preseski, aipagaiei buruz xehetasunak emateko gisan.

A. Hiriart-Urrutyk jakinarazi du oposizioko kide bakoitza batzorde batean dela.

P. Lespadek jakinarazi du ez dela batzorde bilkurarik izan azken puntan abisatuak izan baitziren.

Jaun auzapezak zehaztu du biziki fite egin behar zela. Informazio horren berri jakin zuen Kontseilu Nagusiko lehendakariarekin bazkaldu zelarik joan den urriaren 12an, zeina gure lurraldeko Lurralde Kontratuaren ordezkaria den.

Ph. Bacardatzek galdegin du proiektu horiek zertan oinarrituz gauzatu ote ziren, eta jakinarazi du baldintza agiri bat egina izan behar zela.

P. Lespadek erantzun du deus ez zela egina.

A. Hiriart-Urrutyk galdegin du nor diren arkitektoak.

P. Lespade eta D. Irastorzak jakinarazi dute *skate-park*-etako adituekin elkartu direla, eta tenis jokalekuarentzat, Biarritzeko norbait, beste bat Toulousekoa eta tenis ligako arduradun bat. Baina gaur egun, ez da arkitektoak edo obralaririk izendatu.

Ph. Bacardatzek galdegin du eliza sailkatua izateak honen inguruan aurreikusitako obrak aldatuko ote zituen.

Jaun auzapezak erantzun du trabak sortuko zituela.

Ph. Bacardatzek jakinarazi du merkatu estaliaren eraikitzea kendua baitzen, jostun elkartea Ste Marie etxean egoten ahalko zela.

Jaun auzapezak zehaztu du merkatu estaliaren kokagunea ez zela finkatua izan.

A. Hiriart-Urrutyk jakinarazi du bere taldeak galdegin zuela joan den apirilean inbertsio gastuen xehetasunak ukaitea, eta ez dituztela oraino eskuratu.

Jaun auzapezak erran du ukanen zituztela, eta zerbitzuen zuzendari nagusiari oharra kontuan hartzea galdegin dio. Zehaztu du merkatu estalia ez zela aitzinkontuan ezarria.

Ph. Bacardatzek erran du pentsatzen zuela Ste Marie eraikin zaharrean egiten zela merkatu estalia.

Jaun auzapezak erantzun dio ez zela deus erabakia izan.

Jaun auzapezak Herriko Kontseiluari galdegin dio Lurralde Kontratuko programa berria onartzea, eta baimena emana izan ziezaien doakion gehigarria izenpetzeko eta Kontseilu Nagusiari diru-laguntzak galdegiteko.

Aho batez onartua.

6 – Arnaga – Arraberritze eta balio emate obrak (arkitektura atala): 2015eko programa.

Jaun auzapezak jakinarazi du 2015eko parkearen arraberritze eta balio emate obren programa pergola handiaren eta negutegiaren arraberritzeko zela, Voinchet jauna izanen delarik obralari.

DRACak Herriko Etxeari galdegin dio deliberatzea 2015 urte hastapenean eginen den obra programa horri buruz. Obrak 199.990,71€-koak izanen dira (BEZa gabe), 200.000 €-ra biribildua izan da Rieu jaunak galdeginik. Gehitu behar dira pergolako arraberritze obra gehigarriak: 15.000 € (BEZa gabe). Beraz obren zenbatekoa, 215.000€-koa izanen da orotara (BEZa gabe): %80a diruz lagundua izanen da, hau da, %40 DRACak eta %40 Eskualdeko Kontseiluak eta Kontseilu Nagusiak.

P. Michelenak galdegin du Herriko Etxea segur ote den %80arentzat diru laguntza lortzea.

Jaun auzapezak baietz erantzun dio.

N. Aiçaguerrek galdegin du negutegia bisitatua izanen ote den.

Jaun auzapezak erantzun dio arraberritzea partziala izanen dela eta egituraren elementu batzuk berriz hartuko direla.

N. Aiçaguerrek galdegin du obrek aitzinekoek bezainbat iraunen ote zuten.

Jaun auzapezak zehaztu du obra horiek urte bukaeran hasiko zirela ondoko otsail edo martxoan bukatzeko.

N. Aiçaguerrek galdegin du ikusiz Arnagan egin obra handien ondorioz, Mangin-Payen andereak aurreikusten ote zuen ezinduendako helbide bat, orain artean dena ez delako erabilgarria.

Jaun auzapezak erantzun dio DRACarekin hitzartzen ari ziren proiektua berriz aztertua izan behar zela.

N. Aiçaguerrek galdegin du sasoiko bilana ezagutzen ote zen, bisita kopuruak anitzez jautsi direnez, ala mantendu direnez.

Jaun auzapezak jakinarazi du beheratze ttipi bat izan dela joan den urteari begira, iaz jendeketa handia izan baitzen.

N. Aiçaguerrek galdegin du Arnagako sarrerren bilana ukaiten ahalko duen. Jakinarazi du hetsiak ziren tokietan 2013ari begira, sarrerren kopurua igan zela.

Jaun auzapezak ohartarazi du kurista gutiago izan dela, beraz laguntzaile gutiago, eta horrek zerbait erran nahi duela.

A. Hiriart-Urrutyk galdegin du komunzki Arnaga mozkin ekarle ote den.

A. M. Pontacqek erantzun dio ontsalaz, aitzinkontua orekatua dela, edo defizit ttipi bat duela.

Jaun auzapezak zehaztu du lanpostuak profesionalizatzea erabaki denetik (lanpostu iraunkor batzuk), kostua anitzez gorago dela. Funtzionamendu aitzinkontua edo doi bat defizitarioa da, edo orekatua. Iazko urtea ezohikoa izan da Arnagarentzat.

P. Michelenak hitza hartu du errateko obrek 43.000 € gostako dutela Herriko Etxeari.

Jaun auzapezak baietz erantzun dio.

P. Michelenak galdegin du azken inbertsio obrak ote diren.

Jaun auzapezak erantzun dio egia dela Arnagan anitz inbertitu duela Herriko Etxeak, eta oraino obrak badirela egiteko. Ingeles moldeko lorategia arraberritu behar da, baina obra ttipiagoa beharko du. Haatik, zalditegiek arraberrituak izatea merezi lukete, aktibitate gehiago egiteko gisan museografia mailan eta kultura klaseen errezibitzeko. Beharrezkoa da eraikin hori monumentu historiko gisa sailkatua izatea, diru-laguntza handiak ukaiteko gisan.

Jaun auzapezak Herriko Kontseiluari 2015eko programa onartzea galdegin dio, hau da, 215.000 € (BEZa gabe), eta baimena emana izan ziezaien DRACari eta Eskualdeko Kontseiluari eta Kontseilu Nagusiari diru-laguntzak galdegiteko.

Onartua. Bozkatu gabe gelditu dira: A. Hiriart-Urruty anderea, Bacardatz jauna, N. Aizaguerre anderea, M. P. Michelena, aitzineko obrentzat bozkatu gabe gelditu baitziren.

Ch. Devèzek, finantzen laguntzaile ordekoak, proposatu du Herriko Kontseiluari lehenik 16. puntuari buruz aritzea: artxibatzea, zeinarengatik 7. puntuaren gain ondorioak badiren.

Aho batez onartua.

7 – Artxibatzea.

Ch. Devèzek Martin andere diruzainak igorri gutun baten berri eman du, zeinak jakinarazten duen herritar batek legezko likidazio bat jasan duen Baionako merkataritza auzitegiarengandik, 2013ko martxoaren 11n. Ondorioz, ordaindugabeko 2012ko zaintza gastuei dagokion 328 €-ko zenbatekoa artxibatzea eskatu behar da. Herriko Kontseiluari galdegiten dio bere iritzia eman dezan 328 €-ko artxibatzeari buruz. Aho batez onartua.

8 - Aitzinkontu nagusia: 1. erabaki aldagarria.

Ch. Devèzek aurkeztu du aitzinkontu nagusiaren 1. erabaki aldagarri proiektua, zeina funtzionamendu atalean orekatzen den 43.644 €-ra eta inbertsio atalean, 41.113 €-ra.

Zehaztu du ordena idazpenak direla bereziki, eta jakinarazi du 10.000 €-ko zenbatekoa badela funtzionamendu irabazietan, uztailearen 4ko uholdeen ondotik ukan emaitzei dagokienez, eta ere gastuetan, zenbateko hori kaltetuei emanen zaielako, dosierak aztertuko dituen gizarte arazoaren batzordea bildu ondoan. 26.989 €-ko kreditua bada funtzionamendu irabazietan 74.121. artikuluan: baserrialdeko elkartasun emaitza.

A. Hiriart-Urrutyk galdegin du, baserrialdeko elkartasun emaitzari dagokionez, kredituaren emaitza eskolaldi inguruko denborako aktibitateen finantzamenduarentzat ote den.

Zerbitzuen zuzendari nagusiak erantzuten du Herriko Etxeak ontsalaz 50 € errezibituko dituela haur bakoitz.

A. Hiriart-Urrutyk galdegin du Kanboko ikasle guzientzat hala izanen ote den, bai publiko bai pribatukoentzat, eta Herriko Etxeak ukaiten ote dituen 50 €-ak haur bakoitz ikastolan ibiltzen diren ikasleentzat, eta hala balitz, diru hori ikastolari ematen ote dion.

Zerbitzuen zuzendari nagusiak eta jaun auzapezak baietz erantzun diote.

Jaun auzapezak Herriko Kontseiluari galdegin dio bere iritzia eman dezan Ch. Devèzek aurkeztu aitzinkontu nagusiaren 1. erabaki aldagarriari buruz.

Aho batez onartua.

9 – Prezioak.

Jaun auzapezak Herriko Kontseiluari galdegin dio bere iritzia ematea prezio desberdinei buruz –kontseilari bakoitzak proposamenak ukanak ditu–.

D. Irastorzak galdegin du aldaketak egitea euskal bixkotxaren bestako prezioentzat, Ezpeletako Herriko Etxean argibideak galdegin ondoan:

- Arte artisauak haien materialarekin: 45 € 3 metro lineal entzat eta 5 € metro lineal gehigarria,
- Janari merkatu ekoizleak: 45 € 3 metro lineal entzat eta 5 € metro lineal gehigarria,
- Idoki: 45 € 3 metro lineal entzat eta 5 € metro lineal gehigarria,
- 10 € erakusmahaika argindarrarentzat.

Ph. Bacardatzek galdegin du oihal-etxola azpian diren arte artisauentzat, Herriko Etxeak dituen oihal-etxolak hornitzen.

D. Irastorzak baietz erantzun du.

Ph. Bacardatzek, ohartarazi du, Arnagako prezioei dagokienez, desberdinketa egin dela helduentzako sartze indibidualen prezioentzat, adigailuarekin edo gabe hartzen bada, eta tresna horiek ez direla eginak gela hetsientzat.

N. Aiçaguerre dolu da ez delako entsegu aldirik izan adigailu horiek erosi aitzin. Jakinarazten du tresna horiek entseatu dituela, eta ez dituela efikazak aurkitu.

Jaun auzapezak jakinarazten du erosotasun handiagoa ekartzen dutela, eta talde batean ez diren bisitariak lasaiago direla

N. Aiçaguerrek ohartarazi du ez dela posible lorategiaren bisita baizik egitea.

Jaun auzapezak zehaztu du memoria betebeharrak badela, lorategia familia baten historiari lotua dela. Ez da lorategi botanikoa baina lorategi inspiratua. Herriko Etxeko baratzegainak, P. Azarètek, lorategiaren bisita gidatuak egin ditu, non guti aipatzen duen lorategia, baina anitz Edmond Rostand. Arnaga leku historikoa da, eta ez parke bat.

Ph. Bacardatzek seinalatu du alokairuen emendatzea + %0,5-ekoa dela, Arnagaren alokairua beheititzen ari delarik.

Ch. Devèzek jakinarazi du Herriko Etxeak Arnaga alokatu nahi badu, prezioak beheititu beharko direla.

A. M. Pontacqek zehaztu du azken bi urteetan gutiago alokatu dela.

N. Aïçaguerrek proposatu du sarrera behehitzea karpak instalatzen direlarik, beste toki batzuetan egiten den bezala.

Jaun auzapezak bozkatzea galdegin du.

Prezioak, D. Irastorzak proposatu aldaketekin, aho batez onartu dira.

10 – Lursailen erostea.

Jaun auzapezak Herriko Kontseiluari jakinarazi dio Mattin Etcheparek Chapelet etxea erosi duela Kanbo Beherean, arraberritzeko eta parte bat berriz saltzeko.

Kanbo behereko besta batzordeak seinlatu du auzoko besten kari egiten diren ekitaldiak Chapelet familiaren lursailean egiten zirela.

Herriko Etxeak Etchepare jaunari lursail horren erostea proposatu dio. Honek lursaila eta datxekion garajea kalte-ordain baten truk saldu nahi zuen.

Adostasun bat aurkitu da: garajea aurtikiko da, eta Etchepare jaunak euro sinbolikoaren truk saldu du Herriko Etxeari 101 m²-ko lursaila, jabekideentzat bide zor bat izateko baldintzarekin.

Lursail horretan aparkatzeko hiru toki gauzatuko dira, eta bestetako libro utziko dira. Hau, notario batek idatziko du alokatze eta saltze kontratu guzietan.

Portale bat ezarriko da, eta besta batzordeak lekuak garbiak utzi beharko ditu besten ondotik.

Ph. Bacardatzek galdegin du lursail hori aparkaleku gisa erabiliko ote den eta ez ote den mundrunatua izanen.

Jaun auzapezak ezetz erantzun dio, Herriko Etxeak lursailaren erabilera utziko duela bestetatik kanpo. Jabe eginez, Herriko Etxeak lursail horren helburua atxikiko dela hitzematzen du.

Ph. Bacardatzek galdegin du portalea pilota plazaren sartzean ezarriko ote den.

Jaun auzapezak erantzun dio oraingo toki berean izanen dela.

Jaun auzapezak bozkatzea galdegin du.

Lursaila SARL SIMAri erostea (Etchepare jaunak ordezkaturia) aho batez bozkatu da, Ch. Devèzek ez duelarik bozkan parte hartu, proiektuak pertsonalki hunkitzen duelako.

11 – Donapetiria auzoko lursailaren eskualdatzea.

Jaun auzapezak Herriko Kontseiluari jakinarazi dio Moustirats jaun-andereek galdegin zutela Donapetiria auzoan den haien etxeari datxekion lursailaren parte bat erostea Herriko Etxeari. Hastapenean, burtsakideak ere interesatuak ziren lursail horren erostea baina gero uko egin diote.

Jaun auzapezak proposatu du lursailaren parte bat saltzea (kadastrako BO 0221 sailean, 98 m²) Moustirats jaun-andereei, 75 € metro karratua, hau da, 7.350 €. Eremuaren zerbitzuak aldeko

iritzia adierazi du zenbateko horrentzat. Jaun auzapezak zehaztu du geometra eta akta gastuak erosleek ordaindu beharko dituztela.

N. Aïçaguerrek galdegin du lursaila zedarritua izan ote den.

Jaun auzapezak baietz erantzun dio.

Aho batez onartu da gorago seinالاتu lursaila 7.350 €-rentzat saltzea Moustirats jaun-andereei.

12 – Bide izendapena.

Jaun auzapezak oroitarazi du Herriko Kontseiluari bi lotizamendu egin direla Paskaleku auzoan: bat Mathé Larroulet andereak (Le Hameau de Paskaleku), bestea Mikael Larrouletek. Hirugarren bat eraikitzen ari dute Dussert-Curutchet (Hardoy) kideek, Mathé Larrouletenaren segidan, zeinaren bidea Hardoya deitua izan den.

Jaun auzapezak proposatu du izen bera ematea Dussert-Curutchet kideen lotizamenduko bideari, Mathé Larrouleten lotizamendua zeharkatzen duen bidearen segidan baita.

P. Michelenak proposatu du Marie Hargain edo Argain deitzea. Hau, Kanbon bizi izan zen bertsolari famatua zen 1890. hamarkadan. Ez zuen beldurrik gizonekin norgehiagoka aritzeko eta Anton Abadiak antolatu lehiaketa zenbaitetan parte hartu zuen eta 1895ean sari nagusia irabazi zuen Kanbon. Ezpeleta, Hazparne eta beste herrietako txapelketetan, zenbait urtez aitzineko taldean bukatu zuen. Lehiakideak ere ukan zituen ondotik, Anna Etchegoyen hazpandarra Kanbora etorri zen bizitzera eta biak biziki galdeginak ziren bertsuetan aritzeko ekitaldi denboretan. Gehitu du, orokorki biziki karrika gutik emazte izenak dituztela eta iraganeko emazteei leku publikoan merezi duten lekua eta garrantzia emateko aukera dela hor.

Jaun auzapezak proposamena atxikitzen zuela erran du, baina bidearen parte bat Hardoya deitzen denez, zentzuzkoa iduritzen zitzaiola izen bera ematea beste lotizamendua zeharkatzen duen bideari. Zehaztu du zenbakitua izanen dela.

P. Michelenak zehaztu du “Bixkotx ahizpak” izenari ere pentsatu zuela.

Herriko Kontseiluak, aho batez onartu du “Le Hameau de Paskaleku eta “Hardoy” lotizamenduak zeharkatzen dituen bidea deitzea: Hardoya bidea (chemin de Hardoya).

Aho batez onartua.

13 – Hilerria: kontzesioen berriz hartzea.

Jaun auzapezak betiereko hilobi kontzesioen berriz hartzeko arrazoiak aurkeztu ditu. Izan ere, hilobi batzuk andeatuak dira, eta zenbaitetan ez da gorputzik ehortzirik, edo bakar bat. Legearen arabera, Herriko Etxeak kontzesioak berriz har ditzake. Prozedura luze bat bada horretarako. Komunikazio bat plantan ezarriko da prozedura hori publikoari jakinarazteko, eta ahal bezain bat familiei ere, eta hori, manera guzien bidez (afixak, Internet, gutunak...).

Jaun auzapezak proposatu du martxan ezartzea hogeita hiru betiereko hilobi kontzesio berriz hartzeko prozedura, zeinak hilerriko parte zaharrean diren, 1 eta 23 lerroen artean. Zehaztu du oroitarriak familienak direla, baina ez kontzesioak. Gaur egun, betiereko hilobi kontzesiorik ez da gehiago egiten, bakarrik 15 edo 30 urteko kontzesioak.

Hogeita hiru betiereko hilobi kontzesio berriz hartzeko prozedura abian ezartzea onartu da aho batez.

14 – PAES: estatutuen aldatzea eta geografia eremuaren zabaltzea.

Jaun auzapezak azaldu du:

2014ko irailaren 26an, PAESeko lehendakariak Herriko Etxeari jakinarazi zion Pirinio Atlantikoetako Energia Sindikatuko (PAES) sindikatu batzordeak, 2014ko uztailaren 5eko bilkuran, onartu zuela sindikatuko estatutuen bi punturen aldaketa: PAESaren esku hartze eremu berriak integratzea nazio mailako trantsizio energetikoaren plantan ezartzeari lotu alor desberdinetan, eta PAESaren geografia eremuaren zabaltzea, Biarritzeko Herriko Etxea kide egin delako.

Lurralde Elkargoen Kode Orokorreko L.5211-5, L.5211-18 eta L.5211-20 artikuluetako neurrien arabera, kide diren Herriko Etxe guzien Herriko Kontseiluak –baita berrikitan sartuak– hiru hilabete dituzte aldaketa horri buruz iritzia emateko.

Jaun auzapezak Herriko Kontseiluari galdegin dion PAESaren estatutuen aldaketak onartzea.

Ph. Bacardatzek zehaztasunak galdegin ditu PAESaren esku hartze eremu berrien integrazioari buruz, bereziki herriarteko hitzarmenak izenpetzeko posibilitateaz.

Jaun auzapezak seinatu du PAESeko lehendakariari esplikazioak galdeginen dizkiola.

Aho batez onartua.

15 – Langileak: Higiene Segurtasun eta Lan Baldintzen Batzordea (HSLBB).

Jaun auzapezak oroitarazi du Herriko Kontseiluak jadanik deliberatu duela Batzorde Tekniko komuna sortzeko Herriko Etxea eta CCASaren artean, langileen ordezkari kopurua finkatzeko, parekidetasuna ezartzeko eta elkargo eta erakundeen ordezkarien iritzia biltzeko.

Herriko Kontseiluak gaur deliberatu behar izan du:

- Higiene Segurtasun eta Lan Baldintzen Batzorde baten sortzea, Herriko Etxea eta CCASarena dena, langileen ordezkari titularren kopurua hiru eta hiru ordezkari finkatzeko,
- kopuruzko parekidetasuna mantentzea elkargoaren ordezkari kopurua eta langileen ordezkari kopuruak parekoak izatea finkatuz,
- HSLBBak biltzea elkargoen ordezkarien iritzia.

Aho batez onartua.

16 – Musika eskola: sartzeen kudeaketaren hestea.

Jaun auzapezak azaldu du:

2009ko apirilaren 27ko deliberamenduarekin, Herriko Kontseiluak erabaki zuen sartzeen kudeaketa sortzea, herriko musika eskolan izen emate sariak altxatzeko.

Musika irakaskuntza eskuduntza Errobi Herri Elkargoari eman denez, horretarako sortu zen sartzeen kudeaketa hetsi behar da.

Herriko Kontseiluari galdegina zaio:

- herriko musika eskolan izen emate sariak altxatzeko sortu zen sartzeen kudeaketa hestea,
- jaun auzapezari dagokion erabakia izenpetzeko baimena ematea.

Aho batez onartua.

17 – Auzapezaren erabakien komunikazioa.

Jaun auzapezak oroitarazi du Lurralde Elkargoen Kode Orokorreko L. 2122-22 eta L.2122-23 artikuluen arabera, baita ere 2014ko apirilaren 7ko Herriko Kontseiluaren deliberamenduaren arabera, komunikatzen direla:

- a) hilerrian kontzesioen emate eta berriz hartzei buruzko erabakiak:

Kontzesioen erostea 15 urterako: 4

Kontzesioen erostea 30 urterako (hilobiak): 4

Kontzesioen erostea 30 urterako (kolunbarioak): 2

Kontzesioen berritzea 15 urterako: 2

Kontzesioen berritzea 30 urterako (hilobiak): 16

Urririk diren lursailen berriz hartzea: 2.

- b) lehentasunez erosteko eskubide urbanoari dagokion ezezko erabakiak, 2014ko irailaren 20tik 2014ko urriaren 20ra.

- Lursailak: 1
- Etxeak: 3
- Apartamentuak: 1

A. Hiriart-Urrutyk galdegin du zein zen aipatu lursaila.

Jaun auzapezak erantzun dio Hazparneko bidean den lursail bat dela, Urkoi auzotik hurbil.

17 – Gai ezberdinak.

- B. Jogleuxek jakinarazi du aitzineko bilkuran ez zuela musika eskolako ikasle kopurua eman, izen emateak ez baitziren bukatuak. 2014/2015 ikasturteko ikasle kopurua eman du, hau da, 60k izena eman dute, eta horietan 54 Errobi Herri Elkargokoak dira. 34 ikasle Kanbon bizi dira, 7 Ezpeletan, 7 Itsasun, 2 Jatsun, 1 Larresoron, 1 Haltsun eta 2 Luhuson.
- A. Hiriart-Urrutyk galdegin du zertan ote zen PPRIa.

Jaun auzapezak erantzun dio ondoko PPRIak herri batzuk hunkitzen dituela eta frantses estatuaren gain dela, eta dosierra zertan den ez dakitela.

A. Hiriart-Urrutyk galdegin du, uztailaren 4ko uholdeen ondotik, ez ote duen informaziorik ukan.

Jaun auzapezak erantzun du hautetsi gisa ez duela berririk ukan.

- Jaun auzapezak jakinarazi dio Herriko Kontseiluari, turismo bulegoa 1. mailan sailkatzen zuen prefetura erabakia errezibitu duela, 5 urterako, 2014ko urriaren 16az geroztik.
- Ph. Bacardatzek jakinarazi du Ur onetara joaten den herriko bidea hesiez hetsia dela, eta zaindari bat badela. Galdegin du zertarako hesia ez ote den Ur onen sarreran ezarri.

Jaun auzapezak erantzun du segurtasun arazoengatik zela bidea hetsi. Izan ere, jende anitz Ur onen bisitatzera etortzen zen, obretan ziren guneeetan. Bide hori Ur onetara bakarrik joaten denez, Herriko Etxeak hesteko baimena eman zuen. Bestalde, zuhaitzen erroek bidea altxatzen dute. La Chaîne Thermale du Soleil-ek erroen lana bertikalki gelditzeko sistema bat plantan ezarriko du biziki laster, eta ondotik Herriko Etxeak bidea berriz eginen du.

Ph. Bacardatzek galdegin du Errobi bazter guzia debekatua ote den.

Jaun auzapezak erantzun dio segitzen duen bidea pribatua dela eta Durruty familiarena dela.

- Ph. Bacardatzek erran du Obra Batzordearen bilkuran bide-obren hirurteko plana aurkeztua izan zela. Assantaborda auzoa ez liteke 2017a aitzin eginen, Salagoity etxean proiektu bat badelako.

J. N. Magisek erantzun dio bide horretan autoz ibiltzen ahal dela mementoan, eta beste bide batzuk presa gehiago dutela. Zehaztu du mementoan proiekturik ez dela aipatua izan den etxean.

- A. Hiriart-Urrutyk jakinarazi du jendarmeak pasa direla Kanboko denda desberdinetan, ebaste anitz bazelako, eta galdegin du zertan ote zen afera.

D. Irastorzak zehaztu du jendarmeak pasa direla prebentzioa egiteko.

A. Hiriart-Urrutyk erran du: “beraz ez da ebasterik izan, ez da egia”.

Jaun auzapezak jakinarazi du ez duela horren berri jakin. Jendarmeez hiru hilabete guziz herrian gertatu gertakariez jakinean atxikitzen dutela baina berriki ez dela haiekin bildu

- P. Michelenak adierazi du haien taldeak nahi lukeela berri gehiago jakin proiektu handiak pentsatuak direlarik. Bi proiektu aipatu ditu: lotura-autobusa eta “Courant d’Air” etxearen erostea. Dolutu da bi proiektu horiek Herriko Kontseiluan jakiteaz. Esplikazioak eman dira, baina zaila izan da iritzia ematea, gaiak ez direlako batzordeetan eztabaidatu. Iritzia eman izan behar dute “Courant d’Air” eraikina bisitatu gabe. Geroztik ikustera izan da, eraikina ongi kokatua da, baina ez daki barnean nola den. Erran du bere taldeak ez duela bere iritzia gogoetatu ondoan eman ahal izan, gogoeta denbora bat ukan balute, batzordean eztabaidatu eta bereziki, eraikina bisitatu, lasaikiago agertuko zutela haien iritzia. Presatua bazen ere, deitzen ahal zituzten.

Ph. Bacardatzek ohartarazi du lotura-autobus bat plantan ezartzea aurreikusia zela haien programan, eta erran du: “gure proiektuan bermatu zarete”.

Jaun auzapezak erantzun dio beren programan ere sartua zutela. Hilabete batez 36 bidaia egin dira.

A. Hiriart-Urrutyk erran du informazioa ez zela ongi pasatzen, jendea ez dela jakinean.

N. Aïçaguerrek erran du ordutegia ez dela egokia.

Jaun auzapezak zehaztu du presatua zela “Courant d’Air” eraikinaren parte baten erostea, Herriko Etxea interesatzen duen partearentzat bisita batzuk jadanik eginak izan baitira. Horregatik da Herriko Kontseiluaren esku utzi. Lotura-autobusarentzat, jakinean zirela gehitu du, esperimentazio bat egin zutela.

P. Michelenak adierazi du: “ados gara horretan, baina arazoa lotura-autobusaren plantan ezartzea da, gibelean den gogoeta. Ez dugu deus erran ahal izan, ez gara deituak izan bozka aitzin, “Courant d’Air” eraikinaren gisara. Etorkizunean nahi genuke proiektu garrantzitsuen jakinean izan.

Jaun auzapezak erantzun du partez egia dela. Erabakiak hartu behar direla aukeren arabera, hauek agertzen direnean. Beste erabaki batzuk laster hartu behar dira, Lurralde Kontratuarentzat, adibidez, Kontseilu Nagusiak hala galdeginik. Hautuak ez dira eginak, lana eginen da batzordean.

- P. Lespadek seinalatu du herriko aldizkaria laster aterako dela. Harritua eta nahigabetua izan da oposizioaren orrialdean agertuko denaz. “Zuentzat ardiak gara”, adierazi du. “Lehen agintaldian ez zen talde-bilkurarik astelehenetan. Bigarren agintaldian talde-bilkurak baziren, eta arras ongi dakizu, Nathalie, lantaldean zinelako dimititu arte, eta gai guztiak eztabaidatuak ziren, eta bakoitzak bere iritzia ematen zuen. Herriko kontseilari bakoitzak hitza Herriko Kontseiluan ere hartu behar balu, bilkurek luzaz iraunen lukete, eta jadanik aski luzeak dira”. Pentsatzen zuen “oposizio bat konstruktiboa zela”. Berriz erran du: “zinez biziki nahigabetua naiz”.

Jaun auzapezari hitza har ote nezakeen galdegin diot.

A. Hiriart-Urruty: “Ikusten jaun auzapezari baimena galdegin diozu”.

P. Lespade: “Ez nakien aldizkaria atera aitzin edo ondotik erran behar nuen. Horregatik dut jaun auzapezari aipatu. Pentsatzen nuen zerbait konstruktiboagoa ezarriko zenutela orrialde horretan”.

A. Hiriart-Urrutyk erantzun dio: “oposizio konstruktibo bat izateko, proiektuen partzuer behar genuke izan. Baina ez gara!”.

Ph. Bacardatzek ohartarazi du aldizkari osoa irakur zitekeela.

A. Hiriart-Urrutyk seinalatu du Herriko Kontseiluko azken bilkuran galdegin zuela norbaitek hitza hartu nahi ote zuen M. Jenvrinen gertakaria zela-eta, baina nehork ez zuela bere iritzia eman nahi ukan, auzapeza zen mintzatu.

R. Barbierrek seinalatu du A. Hiriart-Urrutyri gai hori talde-bilkuran aipatu zela eta jaun auzapezak ongi egin zuela hitza hartzea, denek hitza hartu izan balute Herriko Kontseiluan, gauzak laster minduko zirela, eta gerta zitekeen zuekin kalapitan aritzea eta haserretzea, eta ez zen leku egokia.

P. Michelenak: “Zure zintzotasuna estimatzen dut, Pascale”.

A. Hiriart-Urrutyk galdegin du: “noizko mikroak?”

Jaun auzapezak erantzun dio ondoko Herriko Kontseiluko mikroak ezarriko zituztela.

Bilkura 22:40ean bururatu da.